

ZURI
Leire Bilbao
Ondarroa, 17 urte

Zuri,
orri zuri horri,
hitz hitsaren hotsaren hotza
balaren pare burmuinean
ostatu harturik,
asfaltu erdian erne
den belar printza baino
are bakartiago erideten
zarenean...
Zergatiaren oihartzunak
xularme oro dardarazten
dizunean,
maitasunaren interpretazio
trunkatuaren muinaz jabetzean,
ezer ez zenekiela,
ez dakizula eta
sekula jakingo ez duzula ohartzean;
alferrikako,
huts,
ezereza...
gizakiak zizelaturiko
lege utopikoen nerabe
kausitzen zara,
senari edo zentzuari
zeini jarraiki erabakitzeke
senak hutsegiten dizun zentzurik
gabeko munduon.

Erantzunok baino hodei ertza
lehenago ukitu duzun ziurtagiriz,
sortzea, bizitzea eta hiltzearen
balizko bereizketa ulertzeko zailtasunez,
galdera erretorikoen
putzu amaigabeen abailtzen zara;
izatearen ondorioa edo ondorioaren izatearen
dudaz,
zarenaren definizio ezaz
galdera ikurraren
presentzia ere ezin
onarturik.
Bide bihurtunetsu
eta bakarra daukakezu:
Aginduriko eguneroko
bizitzari jarraitu,
EZJAKINTASUNEAN.